El jurado oficial se encargará de pre-seleccionar y premiar algunas de las mejores obras individuales y grupales. La ciudadanía también podrá premiar las mejores obras en cada categoría y modalidad a través de la página web de Derechos Humanos: www.donostia.eus/gizaeskubideak.

Los premios se entregarán el 26 de abril de 2026, en el salón de Plenos del Ayuntamiento de Donostia /San Sebastián.

Además de la exposición de los trabajos, se editará la publicación "Bazen behin irudi bat..." para las personas participantes, que recoge una selección de las obras de mayor calidad y sensibilidad.

# KUXKUXEROEN KIT-A: NATURA ZEURE BEGIEKIN BEHATZEKO MATERIALA ESKURAGARRI CRISTINA ENEAN ETA ULIAN

Cristina Enea Fundazioak haur, gazte eta familien eskuetan jartzen ditu inguratzen gaituen natura geure begiekin behatzeko eta xehetasun ezkutuenak ezagutzeko materiala: kuxkuxeroen kit-a. Prismatikoz, lupaz, gidatxoez, xomorroak harrapatzeko gailuz, iparrorratzez eta bestelako baliabideez osaturiko materiala maileguan har daiteke Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean eta Ulia Interpretazio Zentroan.



Natura, bertako biztanleak eta elementu nagusiak behatzeko bi gauza besterik ez ditugu behar: jakinmina eta begi-parea. Horretarako, esplorazioa estrategia zoragarria izan daiteke naturak eskaintzen dizkigun altxor txikiekin ikasteko eta miresteko.



Inurrien kolonia bat aurkitzeak, txori bat zizareak harrapatzen behatzeak edo hosto formak imajinatzeak, txikienak naturaren aniztasunera hurbiltzen ditu, eta horrek inguruko mundua estimatzera eta bertan duten lekua jakiten laguntzera bultza ditzake gazteak. Eta horretarako leku paregabeak dira Cristina Eneako parkea eta Ulia mendia. Inguru horiek esploratzeko eta naturak eskaintzen dizkigun sekretuak ezagutzeko Kuxkuxeroen kit-a aloka dezakete familiek. Nola? Harrerara joan eta bertan eskatuta. Materiala alokatzea doakoa da baina, badaezpada, pertsona heldu baten nortasun agiria utzi beharko da, berme gisa, eta heldu horren ardurapean egongo da kit-a ondo zaintzea eta jasotako egoera berean itzultzea materiala.

Kit-a eskuragarri dago urte osoan zehar Cristina Enean eta Ulian, baina opor-garaia une egokia izan daiteke familia osoarekin egiteko.



# SEXUZ ZENTZUZ PROGRAMA

Donostiako Udalaren Hezkuntza Saila eta Harremanak elkartearen elkarlanari esker Donostiako Lehen Hezkuntzako honako ikastetxe hauetan Sexuaz Zentzuz programa eskaintzen ari da: Herrera ikastetxea, Jakintza ikastola, Harri-berri Oleta, Aitor ikastola, La Asunción, Intxaurrondo ikastola, Orixe, Igeldo herri eskola, Aiete eta Martutene.

Programa honetan, pertsonen dimentsio sexualari hurbiltzea da helburua: neska eta mutil  bezela nola eraikitzen garen, norberaren izanak, izaerak eta ñabardurei espazioa emanez; sexualitatean plazerrak, norberaren gorputzak, sentsazio eta emozio ezberdinak duten eragina eta lekua ezagutuz.

Neska eta mutilen arteko elkarezagutza eta ulermena landuz, elkarrekiko tratu onei espazioa ematen zaio eta eskainitako lanaren oinarrian, haurraren garapen psikoafektiboa, ikuspegi sistemikoa eta begirada humanista daude.

Lehen hezkuntzako urteak oso urte aproposak dira gai hauek lantzeko, ikasleak beraien bizipenetatik gertu topatzen dira eta irekitasun handia dute daukatena konpartitzeko.

Garrantzitsuena tailerretan sortzen den giroa izaten da. Epaiketarik gabe dagoenari espazio egiten zaionean bakoitzak dakarrena konpartitzeko aukerak sortzen dira, eta horrek besteak ulertzera eramaten gaitu eta beraz elkarrekin egoten ikas daiteke.

**Ikasleentzako trebakuntzaren EDUKIAK, LH4 mailako haurrekin:**

- Gorputzaren kontzientzia eta bere balioa.
- Gorputza, plazer iturria.
- Gorputzaren balioaren bidez, higienea eta berekiko zainketa.
- Norbere ezaugarri positiboak: dohainak, trebetasunen kontzientzia.
- Sexualitatea eta ernalketaren arteko ezberdintasunak.
- Familia eta gizartean dauden familia eredu ezberdinak.
- Sentimendu eta emozioen onarpena eta adierazpena.
- Pertsonen arteko harremanak eta batez ere lagun taldetan sortzen diren harremanak (ezberdina izatea, ezberdin jokatzea, lagunen arteko harreman ez osasuntsuak, taldeak hartzen dituen erabakien aurrean norberaren jarrera.)
- Harremanetan kooperatzearen beharra.
- Entzuketa aktiboa.

METODOLOGIA: Ikasgelako metodologia, **aktiboa eta partehartzailea** da. Ikasleen interesetatik eta ezagutzetatik abiatuta, esperientziak eta sentimenduak adierazteko, antolatzeko, partekatzeko eta horiei buruz gogoeta egiten da. Horregatik, egindako proposamena, ezinbestean, irekia izango da, jarraibideak eta baliabideak emanez, baina edukiak ikasleek, unean-unean egoki irizten dioten moduan aldatzeko, osatzeko edo indartzeko.

Elkarri  begiratuz, norbere burua ezagutzeko aukera izanez eta pertsonen osotasunari espazioa eginez, erabilitako metodologia erlazionala da.






# LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAK 55 URTE BETE DITU

2025-2026 ikasturtean, Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolak 55 urte betetzen ditu eta urteurreneko ospakizunetan ari gara.

1970-71 ikasturtean ireki zituen eskolak ateak. O.H.O.ko ikasketak ematen ziren orduan, 1.mailatik hasi eta 8. maila bitarte. Hasiera batean, eskola Nazionalak izan ziren: "Nacional mixta Luis Eceiza" eta maila bakoitzeko 2 gela zeuden, 31 ikaslekoak gutxi gora behera.

1990. urte inguruan, eskola, B eredukoa izatetik D eredukoa izatera pasatu zen eta 1995. urtean Hezkuntza sistemaren aldaketaren ondorioz Haur eta Lehen hezkuntzako eskola bihurtu zen. Ordurarteko 8.maila desagertu eta 6.mailara arteko eskolak emango ziren ordutik aurrera Luis Ezeiza Herri Eskolan.

Gaur egun, Luis Ezeiza Herri Eskolak bi eraikin ditu Eskoriatzan. Batean Haur Hezkuntza eta bestean Lehen Hezkuntza kokatuta dago. Lerro bateko ikastetxea da eta Haur Hezkuntza (lehen zikloko 2. mailatik hasita) eta Lehen Hezkuntza ematen dira.

Bi jangela ditu eskolak: bata Lehen hezkuntzako eraikinean eta bestea Haur hezkuntzako eraikinean. Bi sukaldarik prestatzen dute egunean eguneko bazkaria. Haur hezkuntzako ikasleek, ostiralero, mendira txangoa egiten dute egin euri, eguzki edo lanbro.

Lehen hezkuntzan, astero, bizikidetza tailerrak egiten dira 1.mailatik 6.mailara bitarteko ikasleak elkarrekin taldekatuta. Ikasturte honetako tailerrak sukaldaritza, eskulan tailerra, ikus-entzunezko tailerra eta mugimendu tailerra dira, azken hau ingelesez delarik.

**ESKOLAKO ALTXORRA**

TXIMELETA GELA. Luis Ezeiza Herri Eskolan dagoen Aspaceko gela egonkor bat da, eskola inklusiboa lortzeko bidean 2014-15 ikasturtean sortutako proiektua.

Tximeleta gelaren helburua aniztasun funtzional sakona duten ikasleen sozializazioa da, eta horretarako ezinbestekoa da eskola konpartitzea eta, beraz, baita ekintzak ere. Inklusioa diogunean, ikasleen helburuak kontuan harturik ekintzak, proiektuak… egokitzea da, bertan denok parte hartuz.

Gizartean ematen diren aldaketa guztien isla da eskola eta erronka berrien aurrean, eskola komunitatea elkar batzen jarraitzen dugu ikasleen beharrak egokiro asetzen, bakoitzari behar duena eskaintzen, norberaren erritmoak errespetatzen, euskara sustatzen, benetako inklusioa bermatzen, tratu onen aldeko eskola garela ziurtatzen, elkar zaintzen. Familia handi bat gara. Eta familia honek, 55 urte betetzen ditu. Hau ospatu beharra dago!!

**55 URTEURRENA OSPATZEKO PRESTATU DITUGUN JARDUERAK**

Ikasturte guztian zehar, hilero, ekintza ezberdinak antolatu ditugu; batzuk eskola komunitateko kideentzat eta beste batzuk herritar guztientzat, hala nola: mural margoketa, kartelak egitea, eskolako ikasle ohien bazkari topaketa, "Salvamento Maritimo Humanitario" taldearen hitzaldia, erakusketa, talentoen erakustaldia, Ndank Ndank taldearen hitzaldia, ibilaldia…



• Azaroan, "Salvamento Maritimo Humanitario" (SMH) taldeak, eskolan, hitzaldi batzuk emango dizkie ikasleei eta arratsaldean, herri mailako hitzaldi bat antolatu da, herritar orok joateko aukera daukana (aldibereko itzulpen zerbitzua egongo da) eta talde honek betetzen duen lana ezagutzeko aproposa izango dena. Ostean, larunbat horretan, 2.eskuko azoka antolatuko du eskolak eta jasotako dirua SMH taldearentzat izango da.

• Abenduan, herriko Kultur Etxean, Luis Ezeiza Herri Eskolaren historiaren eta bilakaeraren inguruko erakusketa antolatuko da. Erakusketa irekia izango da eta abenduaren 11tik 24ra bitarte zabalik egongo da.

• Urtarrilean, eskolako komunitateko partaideen artean, talentu erakustaldi bat egingo da, guztiok barruan dugun artista hori azaleratzeko unea izango delarik.

• Otsailean, euskararen inguruko ekintzak egingo dira Korrika Kulturala aprobetxatuz.

• Martxoan, Kulturartekotasunari emango zaio ikusgarritasuna eta horretarako, Bergarako Ndank Ndank taldearen eskutik “Kulturartekotasunetik haratago” izenburuko hitzaldia eskainiko zaie herritarrei.

• Apirilean, festa handi bat egingo da Eskoriatzan. Debagoieneko eskola publikoek osatzen dugun Goieskola taldeak ere urteurrena ospatzen duela aprobetxatuz, 25 urte hain zuzen, Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren 2.jaia ospatuko da Eskoriatzan. Egun guztiko festa erraldoi bat izango da.

• Maiatzean, eskola komunitate mailako ibilaldi bat egitea proposatuko da eta ikasturteari amaiera emateko, ekainean, eskolako urteroko jaia ospatuko dugu.






Honetaz guztiaz gain, eskola komunitate mailan ere 55.urteurreneko abesti bat sortu dugu, momentu honetan bideokliparekin buru-belarri ari garelarik. Urtea amaitu aurretik entzungai eta ikusgai egongo da hau ere.

## URTEURRENAREN LOGOA

Aurrez aipatutako guztia elkarrekin eta elkarlanean sortzen ari gara: gaur egungo irakasle, familiek eta ikasleek parte hartzen dute eta baita eskolako ikasle, irakasle edota familia ohiek ere. 2024-25 ikasturtean antolatu genituen lan talde desberdinak eta ordutik, elkarlanean dihardugu jo ta ke lanean. Iaz, motorrak berotzen hasi ginen eta 55.urteurreneko logo lehiaketa antolatu zen. Partaidetza handia egon zen eta iazko eskolako jaian, Luis Ezeiza Herri Eskolako 55.urteurreneko logoa aukeratu eta aurkeztu zen.

Logo honek primeran islatzen du eskolako aniztasuna: izan funtzionala, kulturala, sozio-ekonomikoa… Luis Ezeiza Herri Eskolan aniztasuna dugu altxor, aniztasun horrek dakarren erronka, zailtasun, beldur eta aberastasun guztiekin.

## ETORKIZUNARI BEGIRA

Lanean jarraituko dugu Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskola, herriko eskola erreferente bihurtzeko, oraindik ere jendeak dituen aurreiritziak baztertzeko, gure lana ezagutarazteko, herriko haur eta familia guztiak elkar ezagutu eta errespetatzeko… Beti ere elkar lanean eta elkar zaintzen.

Beste 55 urte Hezten eta Hazten jarraitu dezagun; Luis Ezeiza Herri Eskolak guztiona eta guztiontzat izaten jarraitu dezan.



# GIPUZKOAKO ESKOLA KIROLA EREDUA

## Parte-hartzea batazbeste %50 arte jaitsi da Gipuzkoan

**GIPUZKOAKO ESKOLA KIROLAREN EREDUA AZKEN HAMARKADETAN ARRAKASTATSUA IZAN BADA ERE, AZKEN URTEETAKO DATUEK ARGI UZTEN DUTE ARRISKUAN DAGOELA, PARTE-HARTZEA %40 ETA %50 ARTEAN JAITSI BAITA. EGOERAK HORRELA JARRAITUZ GERO, PROGRAMAK EPE ERTAIN EDO LUZERA DESAGERTZEKO ARRISKUA DU TAMALEZ.**

Urtarrilean egindako lege-aldaketak eztabaida piztu du. TSJPVren epaiak adierazi zuen legeak multikirolaren eskaintza "bermatzen" duela, baina ez duela derrigorrez ezartzen. Horrek zuzenean kolokan jartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak azken 30 urteetan garatu duen eredua: haurra erdigunean jarritako multikirol sistema hezitzailea.

### ESPEZIALIZAZIO GOIZTIARRA INDARTZEKO ARRISKUA

Aldaketa juridikoak espezializazio goiztiarrerako atea zabal dezake. Eredu piramidala indartuko litzateke, non haur asko hasten diren, baina bidean geratzeko arrisku handia duten. Eredu honetan "onenei" soilik irekitzen zaie atea klub profesionaletara. Adituen iritziz, hori ez da ez inklusiboa, ez hezitzailea, eta epe luzera, ezta eraginkorra ere.

Gainera, ikerketen arabera, espezializazio goiztiarrak lesio gehiago sortzen ditu eta garapen orekatua oztopatzen du. Gurasoen presio emozionalak eta kluben arrakasta-helburuak ere aipatzen dira egungo arazoen artean.

### GIPUZKOAKO EREDUA: INKLUSIOAREN ETA HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA

Orain arteko ereduan, Eskola Kirola hezkuntza-proiektu baten parte izan da. Helburua ez zen emaitza, baizik eta haur guztiek aukera berdinekin parte hartzea. Sistema honek hainbat indargune ditu:

- Ikastetxeko gela ezberdinen arteko harremanak sustatzen ditu.
- Haurrek kirol desberdinak probatzeko aukera dute, gus tukoena aurkitu arte.
- Familia askorentzat eskura dagoen kirol aukera bakarra da.
- Behar bereziak dituzten haurrek ere parte hartzen dute, eredu inklusiboa bermatuz.
- Kirol aniztasunak garapen fisiko eta psikologiko orekatuagoa dakar.

**Eredu honen eraginkortasuna datuek berretsi dute: azken hamarkadetan, Gipuzkoa izan da Espainian Olinpiar Jokoetara kirolari gehien bidali duen lurraldea proportzioan.**



### NAZIONAL ETA NAZIOARTEKO KONPARAZIOAK: NORVEGIAREN KASUA

Adituek sarritan aipatzen dute Norvegiaren eredua, Gipuzkoakoarekin antzekotasun handiak dituena. 1988tik, 14-15 urte bete arte debekatuta dago espezializazio profesionala, eta haurrek gutxienez bi kirol egitea derrigorrezkoa da. Neurri horiek ezarri zirenetik, herrialdeak arrakasta handiak lortu ditu nazioarteko txapelketetan.

### MULTIKIROL PROGRAMAREN FUNTZIOA: GUTXIENGOEN BABESA ETA BERDINTASUNA

Gipuzkoako multikirol programak kirol gutxituak babesten ditu eta haurrei euren egiazko gustuak aurkitzeko aukera eskaintzen die espezializatu aurretik. Klub batean aritu ahal izateko eskola kirolean parte hartzea eskatzeak haurren garapen osoa bermatzen duela azaltzen dute arduradunek. Hala ere, parte-hartze datuen beherakada nabarmenak ohartarazten du eredua ahultzen ari dela.

### ETORKIZUNA KOLOKAN

Adituen eta hezitzaileen artean kezka zabaltzen ari da: Eskola Kirola kolokan dagoela diote, eta egungo joera mantenduz gero, programak pixkanaka desagertzeko arriskua du. Eskola Kirola ez da soilik kirola egitea; harremanak, balioak, inklusioa eta haur guztien garapen osoa dira jokoan daudenak. Gipuzkoak urte luzez defendatu duen eredua erreferentzia izan da, eta orain, erronka nagusia etorkizunean ere horrela izatea da.



# ESKOLA BIKAINA DENONTZAT

El Departamento de Educación ha puesto en marcha la iniciativa "ESKOLA BIKAINA DENONTZAT" con el objetivo de sentar las bases para "construir un sistema educativo más cohesionado , inclusivo y justo". Esta iniciativa, conocida también como "Pacto contra la Segregación Escolar", ha reunido a diversos agentes sociales vinculados con la educación: profesorado, familias, patronales de centros privados, universidad, partidos políticos y diferentes organizaciones que trabajan a favor de los derechos de la infancia.

En las dos reuniones realizadas en la primera fase de esta iniciativa , lo que se ha pretendido, sin exito, ha sido consensuar un documento de diagnóstico de la situación, junto con una batería de propuestas de futuro. El Departamento de Educación presentó un primer borrador y abrió un breve periodo para el envío de aportaciones.

Este primer documento de diagnóstico reconoce la existencia de centros con índices muy elevados de vulnerabilidad, pero elude profundizar en las causas que explican esa concentración, y tampoco evalúa, desde un punto de vista crítico, el impacto de las medidas aplicadas estos tres últimos cursos.

En el documento de diagnóstico final, redactado también por el Departamento de Educación, tenemos que decir que no se han tomado en consideración ninguna de las cuestiones planteadas por BAIKARA/EHIGE y tampoco se han tenido en cuenta propuestas de futuro que permitirían un sistema educativo más cohesionado y justo.

El planteamiento de la segunda fase de esta iniciativa, sólo puede ser calificado de "juego de entretenimiento". Reunidos los agentes educativos , se les solicita que reflexionen sobre los principios y valores recogidos en la Ley de Educación. Se les pide a los participantes, con el texto de la Ley en la mano, opinión sobre los principios y valores recogidos en esta norma aprobada hace escasamente dos años, a sabiendas de que éstos, forzosamente deben comprenden e inspirar el marco del futuro Pacto contra la Segregación. ¿Cual es entonces el sentido de la propuesta?,¿ Negar la Ley?, ¿Reafirmar la Ley?. Lo dicho, sencillmente entretenimiento para no abordar las cuestiones de fondo.

Llegados este punto, resulta dificil pensar que con esta iniciativa y esta metodología se pretenda consensuar medidas eficaces encaminadas a la mejora del sistema educativo. Más bien tendemos a pensar que la hoja de ruta está previamente marcada y que las medidas que el sistema educativo necesita para ser inclusivo y justo se quedarán en el tintero.

**PROPUESTAS de BAIKARA / EHIGE PARA COMBATIR LA SEGREGACION ESCOLAR**

• La necesidad de analizar de manera explícita la dualidad público–concertada como uno de los factores determinantes de la segregación.

• La revisión integral del mapa escolar y de toda la oferta, incluida la concertada, para adecuarla a las necesidades reales de escolarización.

• La eliminación de las excepciones en la normativa de admisión, que permiten situaciones de privilegio en muchos centros concertados.

• La necesidad de evaluar el impacto real de los programas destinados a centros de alta complejidad.

• La demanda de mayor transparencia respecto a la matrícula viva.

• Análisis del efecto segregador de los modelos lingüísticos.



# HEZKIDETZA TAILERRAK

## Donostiako udaleko Hezkuntza Atalak eta BATU elkarteak elkarlanean antolatutako tailerrak

Txikitatik identitatea eta estereotipoak lantzea oso garrantzitsua da, heltzen garenean norbere identitatea ahalik eta modu libreenean esperimentatu eta geure nortasunean estereotipoek ahalik eta eragin gutxien edukitzeko.

Horregatik, bi tailer ezberdin landu dira programa honetan, LH 3-6ko ikasleentzako Estereotipo eta Rol-en inguruko tailerrak eta DBH 1 eta 2-ko ikasleentzako Feminismoa eta Maskulinitatearen inguruko tailerrak.

Txikitatik irudíteri anitz eta positibo bat lantzeak, haurrei, euren identitatea libreki eraikitzen laguntzen die, inguruan dituztenak normalizatu eta errespetatu eta etorkizunerako prebentzio gisa lan eginez. Lehen Hezkuntzan, haurrak ikastera irekiak eta galderaz josiak daude. Gai hauen inguruan ezjakitun dira, horregatik eskolan positiboki lantzeak prebentzio lana betetzen du. Hori dela eta estereotipo eta rol-en inguruan ikasi eta jendartean barneratuta daudenak deseraikitzea da helburua.

DBHn, berriz, (gehienbat mugikorraren eta sare sozialen erabilerak eraginda,) mezu negatibo eta antifeministak geroz eta barneratuagoak daude (gehienbat mutilen artean). Eta horren haritik sortu zen Feminismo eta maskulinitate tailerra. Tailerrean Feminismoaren zergatia ulertarazi, honen inguruko mitoekin hautsi eta feminismoa neska zein mutilentzako positiboa dela ikustarazten zaie gazteei. Tailerren metodologiari dagokionean, tailerrak jolasaren bitartez gauzatzea da gure bereizgarria. Jokoa eraldaketarako tresna dela uste dugu, eta era horretan ikasleen interesa pizten dela. Horregatik, tailerretan, parte-hartzaileek erronka ezberdinak gainditu eta pistak lortu beharko dituzte. Era berean, talde txikietan gauzatzen da, ikasleen autonomia eta parte-hartzea sustatzeko.

Azken hilabeteetan, Donostiako hainbat eskola eta ikastetxetan eskaintzen ari da tailerra. Zehazki, Lehen Hezkuntzako 5 ikastetxetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3 ikastetxetan. Horien artean dira Amassorrain, Herri ametsa, Mendiola, Katalin Erauso, Herrera ikastetxea, Zurriola, Axular eta Mundaiz.








# BIZIKIDETZA ERAIKITZEN PROGRAMA

"Bizikidetza Eraikitzen", Donostiako Udaleko Hezkuntza Atalak antolatutako formakuntza programa da, eta Donostiako hainbat ikastetxetako DBH-ko 150 ikasle ingururekin lantzen ari da, hala nola: Mundaiz ikastetxea, Lauaizeta ikastola BHI eta San Luis La Salle.

Nerabeekin eskoletan giro seguru eta osasuntsuak sortzeko ezinbestekoa da bizikidetza lantzea. Izan ere, nerabeek gaur barneratzen dituzten balioek eta gaitasunek gure etorkizuna moldatuko dute; horregatik, elkarrekiko errespetua, komunikazioa eta adimen emozionala sustatzea ezinbestekoa da. Gero eta elkarbizitza anitzago (eta baita aberasgarriago) batean, nerabeak gaitasun pertsonal eta sozial ezberdinetan hezteak gatazkak modu eraikitzaile batean kudeatzea sustatzen du; nerabeen garapen pertsonala sendotuz eta elkarbizitza osasuntsuago bat eraikiz.

Powering Education proiektuaren barruan (www.poweringeducation.com), non nerabe eta gazteen garapen integrala sustatzeko formakuntza aktiboak garatzen diren, Eukene Gontan hezitzaileak bi orduko bi saioko formakuntza programa garatu du, 'Bizikidetza Eraikitzen' izenekoa.

Gazteengandik gazteenganako gertutasunean oinarrituta, *Egiten Ikasi* metodologia aktiboa erabiltzen da, saioetan zehar hausnarketa, esperimentazioa eta parte-hartze aktiboa sustatuz. Horretarako, autoezagutzarako baliabideak, talde-elkarrizketak, role playing-a eta talde dinamikak erabiltzen dira, saio aktibo eta partehartzaileak egituratuz, non protagonistak nerabeak beraiek diren. Horretaz gain, material fisiko gehigarrien bitartez nerabeei saioetan landutako edukiak egunerokotasunean erabiltzera animatzen zaie.

Dinamika hauen bitartez, nerabeen autoezagutza, autoestimuaren lanketa, adimen emozionala, gaitasun sozialak, enpatia eta gatazken kudeaketarako gaitasunak lantzea jarraitzen da. Helburua, osagai hauek gure ongizatean, kalitatezko harreman esanguratsuak sortzeko prozesuan, eta ikasgelan zein bestelako tesuinguruetako elkarbizitza eraikitzailean duten garrantzia ezagutaraztea da, eta hauek lantzeko baliabideak eskaintzea.



# Euskal Eskola Publikoaren Jaia: Urduñatik Santurtzira!

Euskal Eskola Publikoko IGEen Federazioek festa bat ospatzen dugu urtero, 1992. urteaz geroztik, Euskal Eskola Publikoa jai giroan aldarrikatzea helburu duen hitzordua. Aurten, **Euskal Eskola Publikoaren 33. Jaia** ospatuko dugu Santurtzin, **2026ko ekainaren 7an.**

Santurtziko Euskal Eskola Publikoaren sarea ez da makala, izan ere bi haurreskola (Emilia Zuza eta Mirabueno), Haur eta Lehen Hezkuntzako lau eskola (Serantes H.L.H.I., Mtra. Emilia Zuza H.L.H.I., Las Viñas H.L.H.I. eta Itxasoko Ama Ikastetxea H.L.H.I.), Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko bi ikastetxe (Kantauri BHI eta Axular BHI) eta Lanbide Heziketako ikastetxe publiko bat (FP Santurtzi LH) ditu Santurtzik.

Azken urteotan, elkarlanetik abiatuta, Euskal Eskola Publikoa defendatzeko ahalegin garrantzitsuak egin dituzte, eskola-ehundura sendoa eta aberatsa sortuz. Elkarlan horretatik abiatuta, EHIGE eta bertako guraso-elkarteak, udalaren laguntzarekin batera, antolatutako Euskal Eskola Publikoaren Jaia helduko da Santurtzira ekainaren 7an. Bertan eskola publikoko familiak, ikasleak, irakasleak eta eskola komunitatea osatzen pertsona guztien zain egongo gara.

Ekainaren 7an, denok Santurtzira!

Èhunetan

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA. SANTURTZI**

# Euskal eskola publikoaren jaiko online denda












**Egin zure eskaera ▸ jaia.eus/eu/denda**

*Abenduan eskuragarri

# AUKERATU ESKOLA PUBLIKOA

Herritarren proiektu kolektiboa
Euskalduna Demokratikoa Laikoa

**Konfidantzazko hezkuntza proiektuak**
**Berdintasunean ikastea askatasunean haztea delako**
**Gipuzkoako eskola publikoak ✓**

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa